

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERNEDOKO UDALA

2024/2025an euskara ikasi dutenentzako beken deialdia

Udal honek, 2025eko martxoaren 21ean egindako bilkuran 2024/2025 ikasturtean euskara ikasteko laguntzen deialdiaren oinarriak onetsi zituen.

Dirulaguntzen Lege Orokorrak 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, argitaratu egiten dira:

2024/25 Ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntza deialdiaren oinarriak

Oinarri hauen helburua da euskara ikasteko beka emateko esparrua arautzea, Bernedoko udalerrian euskararen ezagutza sustatzeko asmoz; azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Izan ere, artikulua horrek, diru-laguntzak eman aurretik, emakidaren oinarri arautzaileak ezartzen dituzten arauak onartzea eskatzen du, eta, hala aurrekontua gauzatzeko udal arauaren aurreikuspenak garatu.

1. Xedea

Euskara ikasteko beka ematea. 2024ko urritik 2025eko irailera bitartean egiten diren ikastaroetarako emango dira diru-laguntzak; udako ikastaroak eta barnetegiak barne (joan-etorriak eta, barnetegiaren kasuan, mantenua eta ostatua ez dira sartzen).

2. Onuradunak

Euskara ikasteko beka Bernedoko udalerrian erroldaturik dauden hamasei urte baino gehiagoko pertsona guztiek eskatu dezakete. Erroldako baldintza dagokion ikastaroa hasi baino lehenago bete behar da, eta iraun bitartean mantendu. Egindako ikastaro edo barnetegi adina beka eska daitezke.

3. Beken zenbatekoa

Bekaren zenbatekoa, gehienez, matrikula kostuaren edo ikasketa gastuen ehuneko 50 izango da. Edonola ere, bekaren kopurua ezin izango da 250,00€ baino gehiago izan, eskatzaileko eta urteko.

4. Aurrekontu kredituak

1.000,00 euro, 335.480.000. aurrekontuaren aplikazioan.

5. Bekak emateko baldintzak

Laguntza jasotzeko, eskatzaileek egiaztatu beharko dute eskolen ehuneko 75eko bertaratzea izan dutela, gutxienez; edo, hala badagokio, egiaztatu beharko dute euskaltegiak, ikasketa-zentroak edo dagokion erakunde ofizialak eskatzailea matrikulatuta dagoen ikastaroa edo ikastaroak gainditu dituela.

6. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Eskatzaileek udalaren laguntzak eta beste batzuk eskura ditzakete, baina bi horien guztien baturak ezingo du gainditu ikastaroaren matrikularen kostua.

Onuradunak xede bererako beste dirulaguntza edo laguntzaren bat lortzen badu, udalari jakinarazi beharko dio. Beste laguntzak jaso dituela eta horien zenbatekoa zein den jakin ondoren, udalak emango duen laguntzaren zenbatekoa zehazteko jaso diren gainerako laguntzekin matrikularen kostuan zer defizit geratu den hartuko da kontuan.

7. Eskaerak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskatzaileek honakoak aurkeztu behar dituzte:

- Eskaera ofiziala. Horren eredia udal bulegoetan eskuratu ahal da. Eskaera horretan helburu bererako beste laguntzarik eskatu den edo eskatuko den adieraziko da.
- NANaren fotokopia.
- Eskatzaileak zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoan egunean izanaren adierazpena. Egoera hori eskaera ofizialean adierazi beharko da.
- Euskaltegiak berak edo Ikasketa Zentroak emandako matrikularen ziurtagiria. Barnetegiaren kasuan, xehatu egingo dira irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak.
- Matrikula ordaindu izanaren ziurtagiria, banku erakundeak emana.
- Gutxienez eskolen ehuneko 75era joan izana adierazten duen ziurtagiria, Euskaltegiak emana; edo, hala behar denean, matrikulatuta dagoen ikastaroa edo ikastaroak gainditu izanaren ziurtagiria.
- Helburu bererako beste laguntzaren bat jaso dela adierazten duen agiria.

8. Eskaerak aurkeztea eta epeak

Beka eskaerak eta ikastaroaren bukaerako agiriak, eskoletara joan izana edota ikastaroa gainditu izanaren agiria, 2025ko urriaren 30a baino lehen aurkeztuko dira.

9. Eskaerak aztertu eta ebaztea

Eskaerak, bere kasuan, euskara teknikariak aztertu eta balioetsiko ditu. Txosten teknikoak ezagututa alkateak, dekretuaren bitartez, ebatziko du aurkeztutako eskaerak ikusita.

10. Azkeneko klausula

Oinarriotan xedatu ez denerako, ondokoak aplikatuko dira: Udalak onartutako Dirulaguntzak eta Laguntzak arautzen dituen Ordenantza, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, eta ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

Argitara ematen dira denek horien berri eta dagozkien ondorioak izan ditzaten.

Bernedo, 2025eko martxoaren 28a

Alkatea

ENRIQUE JAVIER MORAZA PÉREZ